## **1.2 Helburu zehatza.** Hezkuntza-sisteman hezkidetza eta berdintasunaren aldeko neurriak eta hezkidetza ezartzeko eta koordinatzeko egiturak bermatzea

| EKINTZAK | ADIERAZLEAK | ARDURADUNAK | ALDIA | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 2019-2020 | 2020-2021 | 2021-2022 | 2022-2023 |
| **17.** Ordezkaritza Organo Gorenean Berdintasuneko Ordezkariaren eta Hezkidetzako Arduradunaren izendapena ikastetxe publiko guztietan bermatzea. | Hezkuntza Sailburuordetzaren ikasturte hasierako ebazpenean barne hartu da ikastetxe guztietako Ordezkaritza Organo Gorenean Berdintasuneko Ordezkaria eta Hezkidetzako Arduraduna izendatzea beharrezkoa dela. | • Hezkuntza Sailburuordetza<br>• Hezkuntzako ikuskaritza | X | | X | |
| **18.** Bizikasi-ren BAT taldean sartzea ikastetxeko hezkidetzako arduraduna. | Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko guztietan txertatu da arduradun hori BAT taldera. | • Hezkuntzako ikuskaritza | X | X | X | X |
| **19.** Beharrezkoak diren administrazio prozedurak hastea, hezkuntzako zerbitzu estrategikoen (ebaluazio, ikerketa, hezkuntza-ikuskaritza eta irakasleei laguntzeko zerbitzuak) lanpostu zerrendak aldatzeko; hain zuzen ere hezkidetzako gaitasuna errekonozituta duten lanpostuak egon daitezen. | Aipatu zerbitzuen lanpostu-zerrendak aldatzeko prozedurari ekin zaio. | • Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza | X | | | |
| **20.** Ikastetxeen elkarbizitzaren behatokian ikastetxeak garatzen duen hezkidetzako lanari lotutako funtzioak jasotzea. | Ikastetxeen %50ak, gutxienez, txertatu ditu hezkidetzako gaiak beren Behatokietan. | • Hezkuntza Ikuskaritza<br>• Berritzegune Nagusia<br>• Zonako Berritzeguneak | X | X | X | X |